



Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

Euskal prentsaren ajeak astindu ziren atzo eguerdiko mahainguruan

Disko eta liburu berrien aurkezpenak ere ugariak izan ziren egun osoz

Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azokaren bigarren egunean, aurkezpen eta mahainguruak izan ziren ekitaldi garrantzitsuenak. Elkar, Unibertsitateak, Troka, EHE, Oihuka, Labayru eta Txalapartak beren lanak aurkeztu zituzten.

JOSE LUIS AIZPURI / DURANGO

'Euskal prentsa gaur' titulupean, Jon Sarasuak mahainguru interesgarri bat moderatu zuen Azokaren konferentzia gelan. Hasiera batean bost gonbidatu iragarri baziren ere, hiru besterik ez ziren agertu Durangora: Joserra Garzia, Iñaki Zabaleta eta Nerea Azurmendi.

'Hitzetik hortzera' saioko zuzendariak, euskal komunikabideetan euskararen erabilera traketza salatu zuen behin eta berriz. Euskararen aldeko politika eza zenbait komunikabideetan lotsagarritzat jo zuen Joserra Garziak eta euskara txukunaren apostua egin zuen. ETB, hizkuntza-



Interes handia piztu zuen prentsari buruzko mahainguruak. ANDER GILLENIA

ren zuzentasun gramatikal hutsera ere ez dela iristen azpimarratu zuen Garziak. Nerea Azurmendi kazetariak euskal komunikabideen disperzio eta planifikazio eza aipatu zituen eta Iñaki Zabaleta irakasleak berriz, informazio orokorreko euskal aldizkariaren porrota iragarri zuen eta prentsa lokalaren gorakada.

Aurkezpenen alorrean Elkar, Oihuka eta Txalaparta argitaletxeak aipatuko ditugu labur bada ere. Oihuka disketxe iruñearrak, Hertzainak, Matraka, Sasoi Ilunak eta Baldin Bada taldeen lan berriak aurkeztu zituen atzo arratsaldean, Ritxi Aizpuru arduradunaren agindupean. Portugaleteko Sasoi Ilunak taldeko



Jose Maria Esparza.

kideek beren lehen lana aurkeztu zuten eta beren itsaropena agertu zuten zuzeneko ekitaldietan jotzeko.

Iruñeko Txalaparta argitaletxeak prestatu berri duten euskarazko bilduma aurkeztu zuten arratsaldeko 6.40etan. Jose Maria Esparzak zuzentzen duen Txalapartako ardura-dunek bi itzulpen eta Patxi Zabale-taren 'Nafarroako azken mariskala' antzerki obra aurkeztu zuten; itzulpenak berriz Bobby Sands-en 'Egun bat nire bizitzan' eta Felix Guerra-F. Escobar-en 'Fusilak pizten dituen sua' izan dira. Lehenengo itzulpenaz Mixel Sarasketa arduratu da eta bigarrenagoaz Fernando Arburua Iparagirre.

Gaur zer

- 11.00. Esan Ozenki Records disketxearen azken diskoak.
- 11.20. Igela argitaletxearen azken liburuak.
- 11.40. Elkar argitaletxearen 'Xaguxar' saileko liburuak.
- 12.00. Mahaingurua: 'Nobela beltza euskal literaturan'.
- 17.00. AEK koordinakundearen azken liburuak.
- 17.20. Erein argitaletxearen azken liburuak.
- 17.40. Etor argitaletxearen azken argitalpenak.
- 18.00. Pamiela argitaletxearen azken argitalpenak.
- 18.20. Zurgai aldizkariaren ale berria: 'Euskal Poesia gaur'.
- 18.40. EUSKALDUNON EGUNKARIA: igarotako urteari buruzko azalpena.
- 19.00. Mahaingurua: 'Erotika eta euskal literatura'.

Oihuka-ren Nobedadeak

Durangoko Disko Azokarako



MATRAKA



SASOI ILUNAK



BALDIN BADA

...eta laister M.C.D.

OHIUKA Amaia, 2B 4D Tfna.: 22 93 85 IRUINEA

egin
zaitez
harpidedun
JAKIN

Tolosa hiribidea, 103-1. C - 2009 DONOSTIA - Tel.: 21 80 92

Bilbo Zaharra
Juan Mateo Zabala
Ulibarri
Gabriel Aresti

EGUNKARIArekin batera
euskararen alde

elkar-lan



G
A
U
P
A
S
A
K

JUANJO
OLASAGARRE
poesia liburua

Susa
LITERATURA

(943) 37 07 38